

## LIZ CASTRO - SOSLAIA

Liz Castro Kalifornian jaio zen 1965ean. Azken hogeita hamar urteotan, Katalunian eta AEBetan bizi izan da, eta Bartzelonan bizi da duela hiru urte t'erditik hona. Informatikaren eremuko liburuen idazlea da (webgune, blog eta e-liburuen gaineko liburuena), eta Kataluniaren independentzia prozesuaren aldeko ekintzailea.

Assemblea Nacional Catalanako (ANCko) kidea da hastapenetatik, sorrera bera baino are lehenagotik, eta 2015etik 2017ko urtarrilaren bitartean, Idazkaritza Nazionaleko kidea izan da (lagunik bozkatuena izan zen, 2015 eta 2016ko hauteskundeetan). Exekutiban zegoela, Nazioarteko Batzorde Eragileko koordinatzailea izan zen (batzorde horrek prozesu katalana mugaz gaindi azaltzeko xedea du), eta gaur egun Komunikazio Batzordean dihardu.

2017ko urtarrilean iragarri zuen ANCko Idazkaritza utziko zuela, oinarritik bertatik lan egiteko, eta datorren iraileko galdeketa kanpaina sustatu asmoa duten sare sozialen lan taldea indartzeko.

Sortzailea izatez, Catalonia Press, Kataluina munduari azaltzeko berriaz sortutako argitaletxe txikiko editorea ere bada. Argitaletxe horretan argitaratutako liburuen artean daude *What's up with Catalonia?* eta *Many Grains of Sand*, biak katalanera eta gaztelaniara itzuli dira.

*Many Grains of Sand* iazko irailean argitaratu zen. Argazki liburu bat da, aldaketa politiko esanguratsuak lortzeko aktibismo zibiko, demokratiko eta bortizkeriarik gabea aldarrikatzen duena. Kataluinaren kasua adibide gisa darabil, baina izatez ez da independentziari buruzko liburu bat, demokraziari buruzkoa baino. Liburuak bost kapitulu ditu: *Nazio bat gara*, *Erabakitzeko eskubidea dugu*, *Bozkatu nahi dugu*, *Bozkatuko dugu* eta *Agindu demokratiko bat dugu*. Liburuaren azpi izenburuak (*A sourcebook of ideas for changing the world, tried and tested in Catalonia*) dioen bezala, mundua

aldatzeko ideia liburu bat da, zeinak Kataluinan dagoeneko  
saiatu diren.